# IKASLE ETORRI BERRIEN HARRERA
# TALAIA INSTITUTUA

| NOIZ / ZER | ARDURADUNA | DAGOKION LANA | ZEREGINAK |
|---|---|---|---|
| **ESKOLARATZE ERABAKIA** | ▪ Eskolatze batzordeak | ▪ Ikaslea dagokion ikastetxean kokatzea. | ▪ Dagokion ikastetxera abisua iristen da.<br>▪ Zuzendaritza familiarekin harremanetan jartzen da lehenengo elkarrizketa eguna zehazten da. |
| **LEHENENGO ELKARRIZKETA**<br>▪ Ikasle eta familiarekin harremanetan jartzea. | ▪ Zuzendariak | ▪ Familia eta ikasle berriengandik behar ditugun datu guztiak modu egokian lortzea.<br>▪ Familiari ikastetxearen oinarrizko informazioa ematea.<br>▪ Ikaslearen ebaluazio eguna finkatu. | ▪ Familia eta ikaslearen egoera argitzeko elkarrizketa burutu (“Ikasle Etorkinaren Gurasoekin Hasierako Elkarrizketa.doc” erabili):<br>✓ Ikaslearen datuak.<br>✓ Ikaslearen oinarrizko informazioa.<br>✓ Aurreko eskolaratzea. (Hezkuntza sistemaren bidez informazioa eskura baldin bada hobe).<br>▪ Elkarbizitzarako zein bizitza akademikorako ikastetxeko beharrezkoa den oinarrizko informazioa familiari zein ikasleari hurbildu: garraioa, ordutegia, liburuen zerrenda, udaletxeko zerbitzuak, bitartekariak, laguntzak ... (txostena hizkuntza ezberdinetan prestatu (FR/ ESP/ING)<br>▪ Ikaslearen hasierako ebaluazio egiteko eguna familiari jakinarazi (Epe laburra izan beharko luke). |
| | ▪ Ikastetxeko administrariak. | ▪ Familiari eskolaratze prozesurako tramiteak erraztu. | • Beharrezkoak diren lehenengo tramiteak erraztu.<br>✓ Matrikularako inprimakiak<br>✓ Beka eskaera<br>✓ Garraio eta jangelako zerbitzuen eskaintza<br>✓ .... |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **BIGARREN ELKARRIZKETA**<br>▪ Hasierako ebaluazioa eta galdetegia | ▪ Orientatzailea / Ikasketa burua | ▪ Ikaslearen ebaluazioa egitea.<br>▪ Emaitzen arabera ikaslea zein taldeetan kokatzen den ikustea.<br>▪ Hasiera data erabakitzea. | ▪ Hizkuntza eta Matematika hasierako ebaluazio egin bere gaitasun maila eta hezkuntza beharrak neurtzeko. ("Hasierako ebaluaziorako probak" karpetan dagoen materiala erabili):<br>▪ Lortutako datuekin zein ikasle zein maila eta taldea dagokion erabaki.<br>✓ Ikaslea klaseetan hasiko den eguna eta ordua erabaki eta familiari abisatuko zaio. |
| **IRAKASLEEI INFORMATZEA**<br>▪ Tutore eta irakasleei informatzen zaie ikasle berria datorkigula. | ▪ Zuzendaritza /Orientatzailea / HIPI eta Irakasleak<br>▪ Tutorea | ▪ Tutoreari eta mailako beste irakasleei ikasle berria datorkiela informatu:<br>✓ Ikaslearen berri eman (Izaera, maila akademikoa, beharrak, ...).<br>✓ Noiz hasiko den.<br>▪ Tutoreak ikasle berriaren "ikasle laguntzailea" aukeratuko du.<br>▪ Ikasleen zirkulutan ikasle berriaren berri emango. | ▪ Irakasleekin bilera bat antolatu.<br>▪ Ikaslearen ordutegi berezia egin.<br>✓ Aukerazko gaiak<br>✓ Dagokien HIPI orduak egokitu.<br>✓ Bestelako laguntzak izango dituen aztertu (PT,...)<br>▪ "Ikasle laguntzailea" lehenengo egunetan ikasle berriarekin "enbaxadore" lanak beteko ditu (institutua erakutsi, lagunak aurkeztu, arauak erakutsi,...). |
| **PROGRAMAZIOA EGOKITU**<br>▪ Arloetako programazioak egokitu. | ▪ Arloko irakasleak / HIPI | ▪ Ikasleren programazioa egokitu eta antolatu, ikaslearen gaitasun maila kontutan izanik. | ▪ Irakasle bakoitzak bere arloari eta ikaslearen mailaren arabera materiala prestatu.<br>✓ Material asko dago: Mintegiak barruan dagoen HIPI (karpetan). |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **KLASEETAN HASI**<br><br>▪ Ikaslea klaseetan hasi. | ▪ Tutorea | ▪ Ikaslea bere taldean aurkeztu.<br><br>▪ Ikasleari institutua erakutsi. | ▪ Ikasle berria bere taldean aurkeztu.<br>✓ Komeni da lehenengo aurkezpena bere tutorearekin egitea. Saio berezia izango da.<br>▪ Ikasle berriaren herrialde eta kulturaren aurkezpena bere gelako ikaskideen aurrean aurkeztu, power-point baten bidez egitea gomendatzen da.<br>▪ Ikasle berriari bere “enbaxadorea” aurkeztu eta honen eginkizuna azaldu. Ondoren institutua erakutsi. |
| **ESKOLATZE PROZESUAREN JARRAIPENA** | • Orientatzailea Tutorea, Arloetako irakasleak. | ▪ Arloetako beste irakasleekin bilerak egin ikasleen jarraipena egiteko. | ▪ Ikaslearen jarraipena egin, mailako irakasleekin.<br>✓ Aurreebaluazio eta Ebaluazio saioak erabiliko ditugu balorazio hau egiteko. |